Sartu gure Webean!: www.steilas.eus

INFORRIA 2014-15 06

steilas en informazio orria –Arututako Irakaskuntza Pribatua abenduak 4

ELAk eta Kristau Eskolak berrinterpretatzen dute akordioa:

aldi bateko langileek ez dute atzerapenik kobratuko kontratua amaitzean

Atzo, abenduak 3, bildu zen bigarren aldiz urriak 10eko Akordioaren jarraipena egiten duen Batzorde Parekidea. Jorratuko ziren gaien artean guk bat azpimarratu nahi dugu garrantzi handikoa delakoan. Zehazkiago gio zerrendako 3 puntua "Akordioaren 8. 6) puntuko 3. paragrafoaren interpretazioa". Honetaz Akordioak hitzez hitz, honela dio:

> ***"Pilatutako soldata galerak osotasunean ordaindu aurretik ikastetxearekin lan harremana hautsi duten langileei gaineratiko kopuruak ikastetxearekin lan harreman hori amaitu duen unean ordainduko zaizkie".***

Ikusi genuenaren arabera, Parekidea bildu zenerako atal horren "interpretazioa" adostua zuten *Kristau Eskola-k* eta ELA sindikatuak puntu hauen inguruan:

-Kontratuen amaieran aldi bateko langileei 2009ko taulekin kalkulatuko zaie kalte-ordaina baina **ez zaie dagokien zorra ordainduko**. Langile finkoek bezala, itxaron beharko dute kobratu ahal izateko.

-Lansarien zorra ez ordaintzeagatik langilearentzat ondorio kaltegarriak sortu daitezkeen kasuetan soilik ordainduko da. Besteak beste, erretiroan, heriotzaren kasuan edota ez gaitasun egoerara pasatzeko orduan.

-Jarraitasun saria ere 2009ko taulen arabera ordainduko dute.

steilas ek sektore osoak ulertu zuen bezala ulertu zuen esaldi hori; batik bat hori izan zen gure sinaduraren arrazoietariko bat. Orain, amorrua sortzen digu sindikatu nagusiak eta *Kristau Eskolak*, truke baten bidez-eta bere gehiengoaz baliatuz-akordioaren funtsezko atal bat berrinterpretatzea eta bere balioa gutxitzea. Proposamena itxita jaso dugu eta bileran bertan ezagutu dugu. Helburua argia da, interpretazio berri hori juridikoki blindatzea erreklamazioak egiteko aukerarik egon ez dadin. Proposamena onartu dute mahaian gauden beste kideok hura aztertzeko edo alderatzeko astirik izan gabe. Hau izango ote da Batzorde Paritarioak izango duen funtzionatzeko era? Bere gehiengoaz baliatuko ote dira eztabaidak saihesteko?

Horrez gain, bileran beste puntu batzuk garatu ziren:

-**steilas**-en aurkako bozarekin, Kristau Eskolak egindako lan-egutegiaren proposamena ontzat eman zuen ELAk. Ikastetxe bakoitzaren erabakia izango da, 1252 ordu horietatik lehen hiruhilabetekoan bete ez diren lan-orduekin zer egin.

-2014ko uztailaren 8tik galdutako amatasun astea, diruz jaso daiteke ala enpresarekin adostutako epean gozatu.

-Batzordearen funtzionamendurako araudia onartu zen.

-Eusko Jaurlaritzari interpelazioa: hurrengo bilerarako, osa daitekeen hiruko mahaian eztabaidagai izango liratekeen gaiak adostu behar dira. Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarako aukerak ez dira oso positiboak.

-Hitzarmen-mahaia: Auzitegi Gorenak Transakzio-Akordioa homologatu eta hurrengo egunean eratuta geldituko da.

-Lan-poltsa: bi hilabeteko epean sistema informatiko berezia martxan ipintzea adostu zen; Hezkuntza Laguntzako Espezialistak barne hartuko dituen poltsa eta haien kontratazioa gauzatu beharko dute enpresek.

-**steilas**-ek egindako ekarpenekin onartu zen Akordioaren euskarazko bertsioa.

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☏ 945 14 11 04 🖷 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☏ 944 10 02 98 🖷 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☏ 943 46 60 00 🖷 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joaquin Beunza 4-6 behea 31014 Iruñea ☏ 948 21 23 55 🖷 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org